Duvoisin

1, 2 – Mt 5, Nork ere beraz manamendu horietarik xumeena baitu hautsiren eta halako irakaspena gizonei baitiote emanen, *haina* zeruetako erresuman xumeena deituren da ; aldiz nork ere eginen eta ira-katsiren baititu, *haina* izanen da zeruetako erresuman handi deitua.

3, 4 – Mt 5, Nik derratzuet ordean [...] nork ère berriz, anaiari erranen baitio, Raka, *haina* biltzar-raren meneko izanen delà ; zeinak aldiz erranen baitu, Erhoa, *haina* ifernuko suaren jasankizun delà.

5 – Mt 7, bainan ene Aita zeruetan denaren nahia egiten duena, *haina* da sarturen zeruetako Erresuman.

6 – Mt 7, Edozeinek beraz adi eta bete detzan ene hitz haukiek, *haina,* harriaren gainean bere etxea jarri duen gizon gurbilaren kide eginen dute.

7 – Mt 7, Eta edozeinek adi detzan ene solas haukiek eta bete ez, *haina* izanen da, gizon zoro, legar-raren gainean etxea egiten duenaren iduriko.

8 – Mt 10, Bainan zeinek ère ihardukiren baitu bururaino, *haina* izanen da salbatua.

9 – Mt 10, nork ère bere aita edo ama ni baino maiteago baitu, hura ez da enetzat egoki ; eta nork ère nitaz gainetik maite baitu bere semea edo alaba, *haina* ez da enetzat egoki. – (cf. Hnd, 2, 3 & Hrt, 2, 3)

10 – Mt 10, Zeinak profeta bat, profeta delakoz baitu hartzen, *hainak* profeta saria izanen du ; eta nork ère prestu bat, prestu delakoz hartzen baitu, harek prestu saria du izanen.

11 – Mt 11, Eta nihork ez du ezagutzen Aita Semeak baizik eta *hainak* zeinari Semeak nahi izan baitio ezagutarazi.

12 – Mt 12, Ezen nork ere egiten baitu ene Aita zeruetan denaren nahia, *haina* da ene anaia, eta arre-ba, eta ama.

13 – Mt 13, Nork ere entzuten baitu erresumako hitza eta izpirituz ez ardietsen, etsai gaixtoa heldu zaio eta badarama *hainaren* bihotzean eraina zena.

14 – Mt 15, ...Nork ere erranen baitio aitari edo amari : « [...] », *hainak* ez du ohoratu beharko aita edo ama. – (cf. Hnd 4 & Hrt, 4)

15 – Mt 16, Ezen nork ere nahiko baitu bere bizia begiratu, harek galduko du ; aldiz nork ere ene ariaz galduko baitu bizia, *hainak* aurkituren du.

16 – Mt 18, Nork ere beraz bere burua haurtto hunen heinera baitu apalduren, *haina* zeruetako erre-suman daite handienik.

17 –Mt 18, Eta nork ere ene izenean harturen baitu hulaxeko haurtto bat, *hainak* neroni nau hartzen.

18 –Mt 18, Aldiz nork ère ene baitan sinhesten duten xume haukietarik bâti gaizbiderik emanen baitio, *hainak* hobe luke ihara harri bat lepotik ezar baliozote, eta itsasoaren zolan ito balezate.

19 – Mt l9, Nik derratzuet bada, edozeinek utz dezan bere emaztea, non ez bertzearekin kutsaku delakoz, eta bertze batekin ezkontzen *[sic]* dadien, *haina* linburtzen delà ; eta utziarekm ezkontzen dena, hura ère linburtzen delà. – (cf. Hrt, 5)

20 – Mt19, Etanork ere ene izenaren ariaz utziko baititu etxea, edo anaiak..., *hainak* ehunkun izanen. .. – (cf. Hnd, 5 & Hrt, 7)

21 – Mt 20, jartzea ordean ene eskuinetarik eta ezkerretarik etzait niri ematea zuei, bainan *hainei* zeinentzat berezi baitu ene Aitak. – (cf. Hnd, 7 & Hrt, 8)

22 – Mt21, Eta harri haren gainera eroriko dena, zatikaturen da ; aldiz noren gainerat ère eroriko baita harri hura, lehertuko du *haina.* – (cf. Hnd, 10)

23 – Mt 24, Nork ere azkeneraino ihardukiren baitu, *haina* izanen da salbatua.

24 – Mt 26, Jatekoan enekin eskua bustitzen duenak, *hainak* nau salduko.

25 – Mc 3, Edozeinek egin dezan Jainkoaren nahia, *haina* da ene anaia, eta ene arreba, eta ene ama.

26 – Mc 4, Eraileak, hitza eraiten du. Bide bazterrekoak, *hainak* dire zeinen baitan eraiten baita hitza. Eta aditu duteneko, berehala dator debrua, eta badarama hekien bihotzetan eraina zen hitza.

27 – Mc 4, Halaber, toki harritsuetara eraiten zaiotenak, *hainak* dire, zeinek aditza ditu bezain sarri, berehalakoan bozkarioz onhesten baitute. – (cf. Hnd, 12)

28 – Mc 4, Eta bertzeak, elorrietara eraiten zaioetenak, *hainak* dire zeinek entzuten baitute hitza... – (cf. Hnd, 13 & **Hrt,** 10)

29 – Mc 4, Eta *hainak* dire lur onean erain zaiotenak, zeinek aditzen baitute hitza, eta onhesten,... – (cf. Hnd, 147 & Hrt, 11)

30 – Mc 8, Ezen... norbaitek nitaz eta ene hitzez ahalke hartzen badu, Gizonaren Semeak ere *hai-naz* ahalke izanen du...

30A – Mc 9, [...] Nausia, ikusi dugu norbait zure izenean debruak iraizten zituena, *haina* ez baita guri jarraikitzen, eta debekatu diogu.

31 – Mc 9, Ezen nork ère baso bat ur edatera ematen baitarotzue ene izenean, Kristorenak zaretela-koz, egiaz derratzuet ez duela *hainak* bere saria salduko.

32 – Mc 9, Eta nor ere izanen baita nitan sinheste duten xumetto haukietarik batentzat gaizbide, *hainak* hobe luke, ihara harri bat lepotik estekaturik, itsasora artik balezate. – (cf. Hnd, 15)

33 – Mc 10, Ene eskuinean edo ezkerrean jartzea, ez dago niri ematea ; bainan toki hekiek *hainent-zat* dire zeinentzat apain [d]uak baitire. – (cf. Hnd, 16)

34 – Mc 10, aitzitik nork ère nahiko baitu handiena izan, *haina* zuen zerbitzari beharko da jarri.

35 –Mc 12, Norbeiten anaia hiltzera heldu bada, eta uzten badu emaztea eta haurrik ez, *hainaren* anaiak har beza haren emaztea, eta ondore eman biozo bereianaiari.

36 – Mc 14, [...] bainan zorigatiz gizon hari, zeintaz saldua izanen baita gizonaren semea ; *hainak* hobe zukeen sortu ez balitz ere. – (cf. Hnd, 17)

37 – Lc 6, Eta *hainei*, mailegutan ematen baduzue, zeinen ganik igurikitzen baituzue ordaina, zer izanen da zuen eskerra ?

38 – Lc 6, Ene gana datorrena, ene hitzak entzun eta egiten dituena, *haina* noren iduriko den era-kutsiko darotzuet :...

39 – Lc 6, Aldiz aditzen duenak eta ez egiten, *hainak* iduri du, asenturik gabe lurraren gainean etxe egiten hari den gizona...

40 – Lc 8, Lur onerat eroriak [=erori diren bihiak] *hainak* dire zeinek bihotza on eta guziz onean hartu eta iduki baitute hitza...

41 – Lc 8, Ene ama eta anaiak, *hainak* dire zeinak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen baitute. – (cf. Hnd, 19)

42 – Lc 10, nihork ez daki nor den Semea, Aitak baizik ; eta nor den Aita, baizik-ere Semeak eta *hainak* zeinari Semeak nahi izan baitio ezagutarazi.

43 – Lc 12, Erakutsiren darotzuet noren beldur izan behar zareten : *Hainarentzat* izan zaitezte bel-dur, zeinak hil dukeen ondoan, ifernurat artikitzeko ahala baitu.

44 – Le 12 Edozeinek aitor nezan gizonen aitzinean, Gizonaren Semeak ère aitorturen duela *haina* Jainkoaren aingeruen aitzinean.

45, 46 – Lc 17, Gerta ditezen gaizbideak, ezinbertzea da ; bainan zorigaitz *hainari,* zeinaren egitez gaizbideak gertatzen baitire.[2Hainak] hobe luke, ihara harri bat lepotik ezar eta itsasora artik balezate, eze-nez xumetto haukietarik gaizbidetan erorraraz baleza. – (cf. Hnd, 23 & Hrt, 18)

47 – Lc 17, Bada, hekietarik batek ikusi zuenean bere burua garbitua, gibelerat egin zuen, goraki handietsiz Jainkoa. Eta ahuspez erori zen Jesusen oinetara, eskerrak bihurtzen ziozkielarik ; eta *haina* Samariarra zen. – (cf. Hnd, 24)

48,49 –Lc 17, Nor ere hariko baita bere biziaren salbatzera, *hainak* galduko du ; eta nork ère gal-duko baitu, *hainak* du aurkituren.

50, 51 – Jn l Bainan zenbatek ere onhetsi baitute, *hainei* eman diote Jainkoaren ume bilhakatzeko ahala, *hainei* zeinek haren izenean sinheste baitute. – (cf. Hnd, 26 & Hrt, 19)

52 –Jn l, Ni naiz *hainaren* mintzoa, zeinak mortuan oihu egiten baitu.

53 – Jn l, Hau da *haina,* zeintaz erran baitut :...

54 – Jn 1, bainan urean bataiatzen haritzera bidali nauenak, *hainak* erran izan darot :...

55 – Jn 5, Nork ere sendatu bainau, *hainak* erran izan darot :...

56 – Jn5, zeren nor ere bidali baitu, *haina* ez baituzue sinhesten.

57 – Jn 6, Ene haragia jaten eta ene odola edaten duena, ene baitan dago, eta ni haren baitan. Nola Aita bizi denak igorri bainau, eta ni bizi bainaiz Aitaren ariatik, *haina* ère ene ariatik biziko da.

58 – Jn 7, Ene irakasmena ez da enea, bainan ni bidali nauenarena. *Hainaren* nahia egin nahi badu norbaitek, ezaguturen du hean irakasmen hau Jainkoaren ganikakoa den, ala ene baitarik naizen mintzo.

59 – Jn 7, ...nork ere ordean bilhatzen baitu bera igorri duenaren gorestea, *Haina* zin da, eta zuzen ez denik *haren* baitan ez da. – (cf. Hnd, 32)

60– Jn 8, Nork ere begiraturen baitu ene hitza, *hainak* ez du nihoiz-ere ikusiren herioa.

61 – Jn 9, ...alabainan Juduak hitzartuak ziren orduko, baizik-eta nihork aitor bihurtzen bazuen Jésus Kristo zela, *haina* sinagogatik kanpo ezarria izanen zela. – (cf. Hnd, 33)

62 – Jn 10, Arditegian atetik sartzen ez dena, bainan bertze nonbaitik igaiten, *haina* ebasle eta ohoin bat da.

63 – Jn 10, Baldin jainko deitu baditu *hainak* zeineri ateratu baitzaiote Jainkoaren hitza... – (cf. Hnd, 34)

64 – Jn 12, …Baldin zerbitzatzen banau norbaitek, ohore *hainari* emanen dio ene Aitak. – (cf. Hnd, 35 & Hrt, 22)

65 – Jn 13, ...Nortaz mintzo ote da ? ...Nor da, Jauna ? *Haina* zeinari ogi bustia eskainiko bai-tiot. – (cf. Hnd, 36-37)

66 – Jn 15, Zein ere baitago nitan, eta ni hartan, *hainak* ekarriren du fruitu hainitz